

Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta errepikapen gramatikalizazioa

**Sobre la historia de los reflexivos vascos: contacto
lingüístico y gramaticalización replicativa**

**Sur l'histoire des réfléchis basques: contact linguistique
et grammaticalisation réplivative**

**On the history of Basque reflexives: language contact
and replica grammaticalization**

SALABERRI IZKO, Iker
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-02-17
Noiz onartua: 2020-04-30

Lan honetan euskarazko *buru*-egitura bihurkaria Erdi Aroko latinarekiko ukipenaren ondorioz sortu zelako hipotesia plazaratzen da, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Hipotesi honen arabera, prozesuaren iturria Erdi Aroko latinean ediren daitezkeen *buru* hitzaren erabilera anaforiko eta bihurkarietan bilatu beharra dago. Proposamen honek euskararen historiarako eta berreraiketarako dituzkeen ondorioak ere eztabaibatzen dira.

Gako hitzak: Bihurkaritasuna, errepikapen gramatikalizazioa, Erdi Aroko latina, euskararen historia.

En este trabajo se presenta la hipótesis de que la construcción reflexiva vasca basada en la palabra *buru* surgió como resultado del contacto con el latín medieval, a través del mecanismo conocido como gramaticalización replicativa. Según esta hipótesis, el origen del proceso se encuentra en usos anafóricos y reflexivos de la palabra *cabeza* en el latín medieval. Se analizan asimismo las consecuencias que esta propuesta tendría para la historia y reconstrucción del euskera.

Palabras clave: Reflexividad, gramaticalización replicativa, latín medieval, historia del euskera.

Dans ce travail on présente l'hypothèse que la construction réfléchie basée sur le mot *buru* est apparue à la suite du contact avec le latin médiéval, au moyen du mécanisme connu comme grammaticalisation réplivative. Suivant cette hypothèse, l'origine du processus se trouve dans les usages anaphoriques et réfléchis du mot *tête* dans le latin médiéval. On analyse aussi les conséquences que cette proposition aurait pour l'histoire et reconstruction du basque.

Mots-clés: Réflexivité, grammaticalisation réplivative, latin médiéval, histoire du basque.

This study puts forward the hypothesis that the Basque reflexive *buru*-construction arose by virtue of contact with medieval Latin, by means of the mechanism known as replica grammaticalization. According to this hypothesis, the process was triggered by anaphoric and reflexive uses of the word *head* in medieval Latin. The potential implications are addressed which this proposal may have for the history and reconstruction of Basque.

Keywords: Reflexivity, replica grammaticalization, medieval Latin, history of Basque.

1. Sarrera¹

Euskararen aitzin-historia berreraikitze orduan, ahaide ezagunik (izan) ez duen hizkuntza genetikoki bakartua izanik, bi baliabide nagusi ditu eskura iker-tzaileak: barne-berreraiketa eta alderaketa tipologikoa (Mitxelena, 1963: 16-17; Lakarra, 2005: 408). Lan honetan bi metodoak bateratzen dituen hurbilpena egiten da, euskararen ezaugarri gramatikal baten (*buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkariaren) lekukotzeen aitzineko garaia berreraikitze. Xede hau kontuan izanik, 1.1 atalean euskarazko bihurkaritasuna adierazteko baliabideei ikuspegi tipologikoaren barnean so egiten zaie; 1.2 atalean, berriz, alderaketa egiten da euskararen inguruko hizkuntzekin, egungoekin zein historikoekin, eta 1.3 atalean bihurkari marken gramatikalizazio bidea zehazten da. 2.1 eta 2.2 ataletan euskarazko *buru*-bihurkariak dituzkeen zenbait iturri eztabaidatuta-koan, ikerketa honek euskararen historiarako izan ditzakeen ondorenak aur-kezten dira 3. atalean. Laugarren atalean, azkenik, ondorioak ateratzen dira.

1.1. Euskarazko bihurkariak ikuspegi tipologikoan


Euskaltzaindiak (1991: 62) bihurkaritasuna honela definitzen du: per-paus bereko aditz berak bi izen sintagma adierazten ditutenean eta hauek erreferentziakideak direnean, hots, izaki bera aipatzen dutenean, bihurka-ritasunaz ari garela erran daiteke. Erreferentziakideak diren bi sintagma horietako batek normalean bizidun eragilea adierazten du, eta bertzeak ja-sailea; gainera, lehenbizi datorrenari *aurrekaria* deitu ohi zaio, eta bigarre-nari *bihurkari marka* (Faltz, 1977: 3-4). Horrela, bada, *Jonek bere burua eba-ki du* esaldian, *aurrekaria Jonek* da eta *bere burua* bihurkari marka.

¹ Artikulu honek Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak diruz zuzkitzen duen *Diacronía de la animacidad: aproximación tipológica al origen de las marcas animadas* ikerketa proiektuaren sostengua du (PGC2018-098995-B-I00).

Lan honen lehenbiziko bertsio bat Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoek 2020ko martxoaren 25ean antolatu *Etseti Bihia: Hizkuntzalaritza eta Filologia berrogeialdian* jardunaldian aurkeztu zen. Egileak jardunaldiko parte hartzaileei, batez ere Iraide Ibarretxe-Antuñanori, beren oharrengatik eskerrak eman nahi dizkie. Patxi Salaberri Zaratiegiri ere esker anitz zor dizkiot, artikulua gainean erabiltzeko iruzkin eta zuzenketa guztiengatik.

Munduko hizkuntzen artean bihurkari markak aditzezkoak izan ohi dira, hots, hizkiak, adberbioak edo aditz jokabidea erabiliz adierazten direnak, edota izenezkoak, hau da, izenen eta izenordainen bitartez bideratzen direnak (Lehmann, 2015: 45-52). Bigarren multzoari erreparatuz gero, hiru talde nagusi daude: (a) izen edo izen sintagma balioa duten bihurkariak; (b) izenordain balioa dutenak; eta (c) bihurkari atxikiak, izenordaina eta bertzelako osagai bat dituztenak (König, 2007: 107-111). Schladten (2000) ikerketa tipologikoaren arabera, munduko hizkuntza gehienek (140/150, % 93.3) izenean edo izenordainean dute bihurkari markaren jatorria. Egitura bihurkarion izenezko edo izenordainezko iturri etimologikoa, gainera, eskuarki (89/150, % 60.1) *gorputz*, *buru*, *larru*, *hezur* edo antzeko *gorputz*-atal izena (GA1a) izaten da. Hauetatik *buru* GA1ean oinarritutako egitura bihurkaria dutenak zenbait eremu geografikotara daude mugatuta, baina, oro har, ez dira guti (77/950, % 8.1) (Evseeva & Salaberri, 2018: 395):

1. irudia. *Buru* hitza zentzu bihurkarian erabiltzen duten munduko hizkuntzen mapa (Evseeva & Salaberri, 2018, 395)



Euskara, beraz, horrelako egitura bihurkaria duen Europako hizkuntza bakanetakoa da. Antzekoak edireteko, gure kontinentean, hungarierara jo beharra dago: izenordain bihurkarizat erabiltzen den *mag*- erroak etorkiz *gorputza*, *soina* erranahia du, egun *hazia*, *bihia* (Szent-Iványi, 1964: 64). Ber-

tzela, Ural mendikatearen hego-mendebaldean (erzyan eta mokshan), Kaukason (abkhaz-adyghe hizkuntzetan eta georgieran) edota ipar Afrikan (amazigeran eta berbereraren bertzelako aldaeretan, Marokoko arabieran) kausi daitezke etimologiaz *buru* erranahia duten izenordain bihurkariak (Evseeva & Salaberri, 2018). Zentzu honetan, beraz, euskara mendebaldeko europar hizkuntzen artean berezi antza dela erran daiteke.

Ohar hau garrantzitsua da, euskarazko *buru*-bihurkariak joera tipologiko unibertsalen emaitza izateko aukera ezeztatzen ez badu ere, murriztu behintzat egiten baitu. Bertze modu batera adierazita, euskararena munduko hizkuntzetako joera tipologikoen isla dateke, baina mendebaldeko Europan horren ezaugarri ezohikoa izateak bertzelako azalpena bilatzera bultzatzen du. Gai honi 1.2. eta 2. ataletan helduko zaio berriz.

Zernahi ere den, *buru* elean oinarritu egitura (1a) ez da euskarak bihurkaritasuna adierazteko daukan baliabide bakarra: anitzetan xede bera iragankorra izan ohi den aditza iragangaiztearen bidez, hau da, osagarri zuzena adierazteari utziaz lor daiteke (1b), eta hau, hortaz, aditezko estrategia dela erran daiteke. Honetaz landa, zehar osagarria kasu guti batzuetan bere horretan utz daiteke (i) aldi berean subjektuaren erreferentziakidea eta pertsona izenordaina bada, eta (ii) destinatibo marka badarama (1c)². Hau, beraz, izenordainezko estrategia da:

- (1) a. *gizon hark bere burua hil nahi zuen*
 b. *(*)ispiluan gaizki ikusten naiz*
 c. *ardo hau beretako gorde nahi du*

Kazeninek (2001: 926) dioenez, munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko baliabide bakarra (izenezkoa) izan ohi dute, edo bi (izenezkoa eta aditezkoa). Oro har, beraz, eredu tipologiko hedatuena gehienez ere bi estrategia bihurkari ukaitea da, eta hau baino gehiago dituzten hizkuntzak gutitan kausitzen dira (Haspelmath, 2008: 47). Euskara, berriz ere, alderdi honetatik berezikara da, ez hainbertze mundu mailan, baina bai inguruko hizkuntzen aldean.

² Azkeneko hauei de Rijkek (2008: 365) *bihurkari ahulak* deitzen die, *buru*-egiturak (*bihurkari indartsuak*) ez bezala berariazko forma bihurkaririk ez dutelako.

Atal honi bukaera emateko, aipatu beharra da hiru estrategia bihurkari hauen (1a-c) egoera ez dela egonkorra, ez aldaezina: testu zaharretan ikus daitekeen moduan, euskararen historian zehar hainbat garapen jasan dituzte (Mounole, 2011: 147, 270; Evseeva & Salaberri, 2018: 397-403; Salaberri Izko, 2020: 22-23, 27-28). Honetaz hirugarren atalean mintzo gara berriz.

1.2. Egitura bihurkariak euskararen inguruko hizkuntzetan

Jakina denez, euskarak, mende guti iraun zuten germaniar eta arabiar eraginak salbu, azken mila eta bortzehun urteetan latina izan du inguruan lehenbizi, eta latin hizkuntzak ondoren (Mitxelena, 1964). Ukipen egoera luze eta hertsu honen ondorioz, euskarak gramatikaren maila ia guztietan hizkuntza horien eragin nabaria jasan du. Lan honetako ildoari jarraituz, hortaz, zentzuzkoa litzateke aipatu hizkuntzek historian gaindi izan dituzten bihurkaritasuna adierazteko baliabideei so egitea.

Latin klasikoan eta arruntean *mēd*, *tēd*, *nōs* moduko pertsona izenordainak erabiltzen ziren lehen eta bigarren pertsonan bihurkaritasuna adierazteko (Väänänen, 1967: 199-200). Pertsona izenordain hauek antzeko balioa duten *me*, *te*, *nos...* formak utzi dituzte egungo erromantzeetan. Hirugarren pertsonan, berriz, eta salbuespenak salbuespen, mendebaldeko indoeuropar hizkuntza gehienek duten eta jatorri ilunekoa den **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria dute baliabide nagusitako, zein, gainera, diakronikoki nahiko egonkorra baita (Puddu, 2005; Viti, 2009). Latina eta erromantzeak ez dira salbuespen, hauetan **se-/s(e)we-* izenordainaren ondorengoak kausi baitaitezke, bai egun, bai historian zehar (2a-c, de Lorris & de Meung, 1920; Puddu, 2005: 76; Weiss, 2009: 332; Salvi, 2011: 346-351; Dworkin, 2018: 112):

- (2) a. *amābo*, *accurrite*, *ne se interēmat*
 love.1SG.FUT rush.2PL.IPFV NEG REFL kill.3SG.PRES.SBJ
 ‘Erregu egiten dizut, joan azkar, ez dezan bere burua hil’³ (Plautusen *Cistellāria*, 643, ca. K. a. II. mendea)

³ Euskara ez bertze hizkuntza orotako adibideen lerroarteko glosak *Leipzig glossing rules*-en (Bickel *et al.*, 2015) arabera egin dira, ingelesezko laburpenak barne.

- b. *car il se volt faire*
 since 3SG REFL want.3SG.PRES make.INF
homme
 man
 ‘Bere burua gizon egin nahi duelako’ (*Testament de Maistre Jehan de Meung*, 128, 1296)
- c. *e cuando se vïo en esta*
 and when REFL see.3SG.PST in this
tristencia el rey tan grand
 sadness DEF king so great
 ‘Eta erregeak bere burua horren tristetasun handian ikusi zuelarik’
 (Alfonso X. Jakitunaren *General estoria*, 4. atala, ca. 1280)

König & Siemundek (2000: 117), **se-/s(e)we-* izenordainaren islak ukraineraz duen portaera morfosintaktikoa ikusita, GAI batetik atera ote den aztertzen dute. Hau, edozein kasutan, ustekeria hutsa da, eta, ondorioz, ez dago mendebaldeko indoeuropar hizkuntzetako bihurkari marka nagusia euskarazko *buru-*egiturarekin berdintzerik.

Horrela ikusita, ez du ematen hizkuntza indoeuroparrekiko edota erroman-tzeekiko ukipenak euskarazko *buru-*egitura bihurkariaren sorreran inolako eraginik izan duenik. Haatik, hemen bi kontu azpimarratu beharrak dira: alde batetik, eta aitzineko 1.1. atalean azaldu denez, ohikoa da munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko egitura bat baino gehiago izatea. Bertze aldetik, latinak eta erromantzeek estrategia bihurkari nagusizat *me*, *te*, *nos* formak (lehenbiziko eta bigarren pertsonan) eta **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria (hirugarren pertsonan) izateak ez du erran nahi inoiz bertzelako baliabide bigarrenkaririk izan ez dutela. Ikus Erdi Aroko latineko (3a) eta okzitanierako (3b) hurrengo adibideak (Jensen, 1986: 88; Ramos, 2000: 66):

- (3) a. *trado meum caput vel vinea*
 trade.1SG.PRES 1SG.POSS head for vineyard
mea
 1SG.POSS
 ‘Neure burua neure ardantzearen truke aldatuko dut’ (Valpues-tako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)

- b. *que per amor ten hom son cors*
 SUB for love keep.3SG.PRES man 3SG.POSS body
plus gen
 more nicely
 ‘Maitasunagatik batek bere burua modu atseginagoan gorde beharko lukeela’ (Gaucelm Faiditen *Olerkiak*, ca. 1200)

Bihurkaritasuna adierazten duten bi adibideok garai bertsetatik atereak dira, eta euskarari eragin dioten bi hizkuntzatan daude idatzita: Erdi Aroko latinean eta okzitanieran, hurrenez hurren. Lehenean *buru (caput)* hitza da egitura bihurkariaren oinarri, eta bigarrenean *gorputz (cors)*, hau da, biek GAIak darabiltzate, euskarak bezala. Gainera, latineko adibidea (3a) Hegoaldetik biziki hurran izkiriatura da, Gaztelaren eta Arabaren arteko mugan, eta okzitanierakoa (3b) Iparraldetik ez hagitz urruti, egungo Frantziako hego-mendebaldean, sortu eta hazi zen trobadoreak egina. Horrelako adibideak ez dira bakanak erromantzeen historian zehar, ugariak baizik, 2. atalean erakutsiko den moduan.

Hau jakinda, erraza da pentsatzea (3a-b) moduko adibideen eta euskarazko *buru* hitzean oinarrituriko egituraren artean nolabaiteko lotura izan daitekeela. Haatik, euskarak erromantzeekin historian barna izan duen erlazio asimetrikoa ezagututa, arrazoizkoena *buru* duten egitura horien etorkia euskaratik kanpo bilatzea da. Ondorioz, hemen hurrengo hipotesia plazaratuko da: euskarak *buru* hitzaren erabilera bihurkariak latinetik hizkuntzekiko ukipenaren ondorioz garatu zituen, Erdi Aroan, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Proposamen hau bermatzen duten adibide eta datu gehiago eztabaidatu aitzinetik, bihurkari marken gramatikalizazioaren eta errepikapen gramatikalizazioaren inguruko azalpena eginen da ondoko atalean.

1.3. Bihurkariak, ukipena, gramatikalizazioa eta errepikapen gramatikalizazioa

Hizkuntzalaritza historikoaren eremuan nahiko hedatuta dago ukipen egoerek hizkuntza aldaketa bultzatzen eta azkartzen dutelako ustea (Thomson, 2001: 10; Aikhenvald & Dixon, 2007: 19). Gainera, egitura bihur-

kariak hizkuntza ukipenaren ondorioz errazen hedatzen diren ezaugarri gramatikalen artean daude (Geniušienė, 1987: 303; Heine, 1999: 9-10; Schladt, 2000: 107-108). Ondorioz, erran daiteke hizkuntzalaritza historikoko eta ukipen linguistikako datuek bihurkari marken jokamoldeaz erakusten dutenak lan honetako hipotesia bermatzen duela.

Hemen gramatikalizazioak honako hau adierazten duela ulertzen da: balio lexikoa duen osagaiak bere gain ezaugarri gramatikalak hartzea, edota ezaugarri gramatikalak dituen osagaia are gramatikalago bihurtzea (Hopper & Traugott, 2003: 2). Prozesu hau ulertzeko era honen arabera, gramatikalizazioak elkarrekin lotutako lau mekanismo barne hartzen ditu: (i) *zuritze semantikoa*, hau da, osagaiak bere erranahi edukia galtzea; (ii) *hedatzea* edo *testuinguru orokortzea*, hots, osagaia testuinguru gehiagotan erabiltzea; (iii) *kategoriagabetzea* edo osagaiak ezaugarri morfosintaktikoak galtzea; eta (iv) *hots higadura*, osagaiak bere gorputza murriztea (Kuteva *et al.*, 2019: 3). Goiko 1.1 atalean azaldu den moduan, sarrien gertatzen den gramatikalizazio bideetako bat *GAIa > bihurkari marka* da. Hondarreko kasu honetan, gramatikalizazioko lau mekanismoek (i-iv) hurrengo urratsak (4a-c, 5a-d) dituzte (Schladt, 2000: 113-116):

(4) Aldaketa semantikoa

- a. Lehen urratsa: GAIa perpauseko osagarri zuzena da, eta jatorrizko erranahia baizik ez du.
- b. Bigarren urratsa: GAIa sinekdoke bidez berrinterpretatzen da, subjektuarekiko erreferentziakidetasuna hartu eta bihurkari bilakatzen da. Edozein kasutan, egiturak oraindik erranahi hitzez hitzekoa zein bihurkaria ukan ditzake.
- c. Hirugarren urratsa: GAIak bakarrik irakurketa bihurkaria izan dezake, eta bertzelakoak ere gara ditzake, hala nola elkarkaria.

(5) Aldaketa formala

- a. Lehen urratsa: GAIak morfosintaxian (kasu-markatzean eta komunztaduran) eta sintaxian (hitz-hurrenkeraren askatasunean eta edute izenordainaren presentzian) izen sintagma osoaren portaera du.

- b. Bigarren urratsa: GAIak, aukeran, ezaugarri morfosintaktiko eta sintaktiko murriztuak izan ditzake: komunztadura galtzea, hitz ordena zurruntzea, edutezko izenordaina desagertzea.
- c. Hirugarren urratsa: GAIak nahitaez jokamolde sintaktiko murriztua du, hau da, subjektuaren erreferentziakidea izan behar du, perpausean funtzio bakarra izan dezake, eta ez du hitz hurrenkera aldatzen ahal.
- d. Laugarren urratsa: GAIak ez du, dagoeneko, izen sintagmaren ezaugarri morfosintaktikorik, eta izenordaintako har daiteke.

Oro har, bihurkarien gramatikalizazio urrats hauek (4a-c, 5a-d) izenetik adizkiranzko bidea erakusten dute, izenordaina dela bitarteko, eta hau da 1.1 atalean erakutsi den munduko hizkuntzetako bihurkari marken aniztasunaren arrazoia (Heine, 1999: 7). Egile batzuek, gainera, gramatikalizazio bide honi anafora izateko urratsa gehitzen diote, hurrengo eran (Evseeva & Salaberri, 2018: 424):

- (6) Izena > anafora > (izenordain) bihurkaria > (izenordain) elkarkaria > hizkia

Aldaketa diakroniko hauen (4a-c, 5a-d, 6) banaketa ezagutzea biziki erabilgarria izan daiteke lan honetako hipotesia argitzen laguntzeko, euskarazko *buru*-bihurkarien gramatikalizazio maila eta, ondorioz eta hein batean, *adina* neurtzeko tresnatzat erabil daitekeelakoeta Salaberri Izkok (2020: 24-26), hots, Evseeva & Salaberrik (2018: 397-403) eta Salaberri Izkok (2020: 24-26) erakusten duten moduan, XVI. eta XVII. mendeetako euskararen badira *buru*-egituraren erabilera anaforikoak. Bertze zenbait ezaugarriekin batean, honek adierazten du euskarazko *buru*-bihurkariak gramatikalizazio bidearen hasieran daudela, euskara arkaikoan (1400-1600)⁴ batez ere. Horrela, bada, litekeena da prozesu honen sorrera Erdi Aroan izatea. Gai honi 2. eta 3. ataletan helduko zaio berriz.

⁴ Euskararen banaketa historikoari begira, lan honek Lakarraren (1997: 516) proposamena hartu du oinarri.

Azkeneko hamarkadetako hizkuntza ukipenaren inguruko lanetan behin baino gehiagotan azpimarratu da kontaktu-egoerek hainbat osagaiaren gramatikalizazioa eragin dezaketela (Schladt, 2000: 107-108). Ildo honetatik, gramatikalizazioaren hainbat azpimota bereizi dira: hemen horietako bat, *errepikapen gramatikalizazioa* (EGa) deitu zaiona, azalduko da (Heine & Kuteva, 2003). EGak, ukipen egoeran bakarrik sortzen den gramatikalizazioa izanik, gutxienez bi hizkuntza barne hartzen ditu: eredu-hizkuntza (E-hizkuntza), ukipen egoeran dauden bertze hizkuntzendako eredia ezartzen duena, eta errepikapen-hizkuntza (ER-hizkuntza), E-hizkuntzak ezarritako eredia jasotzen eta garatzen duena (Heine & Kuteva, 2003: 531). EGan gramatikalizazio prozesu oso bat E-hizkuntzatik ER-hizkuntzara hedatzen da, hurrengo mekanismoen bitartez (Heine & Kuteva, 2003: 539, 2005: 92; Ziegeler, 2017: 317):

(7) Errepikapen gramatikalizazioa (EG)

- a. ER-hizkuntzaren hiztunek antzematen dute E-hizkuntzan badela gramatika kategoria jakin bat: Ex.
- b. Hiztunok E-hizkuntzakoaren baliokidea den kategoria (ERx) sortzen dute, beren hizkuntzako materiala erabiliz.
- c. Xede hau erdiesteko, E-hizkuntzan gertatu dela *uste duten* gramatikalizazio bidea errepikatzen dute, hurrengo formularen bidez: $[E_y > E_x] = [ER_y > ER_x]$.
- d. ER-hizkuntzaren hiztunek ERy kategoria ERx gisa gramatikalizatzen dute.

Ohart bedi irakurlea hemen ER-hizkuntzako gramatikalizazioa ($ER_y > ER_x$) burutu daitekeela, E-hizkuntzako ($E_y > E_x$) gertatu gabe ere: horregatik aipatu da (7b)-n *E-hizkuntzan gertatu dela uste duten gramatikalizazio bidea* pasartea. EGa, gainera, ukipen egoeran dauden edozein bi hizkuntzaren artean gauza daiteke, hauek ahaideak izan edo ez, tipologikoki antzekoak izan edo erabat desberdinak. Egia erran, usu aipatzen den EGaren adibidea, hain zuzen, euskararen eta erromantzearen (frantsesaren, gaztelaniaren, okzitanieraren) artekoa da: euskarazko aspektu burutugabearen marka (-tzen, -ten) jatorriz atzizki nominalizatzailearen (-tze, -te) eta inesibo

markaren (-n) bateratzea da. Haaseren (1992: 93) arabera, Iparraldeko euskalkietan -tzen atzizkiaren erabilera (8a) okzitanierako aditz progresiboen (8b) antzeko egitura sortzeko saiakeraren ondorioa da:

(8) a. *zerbait egi-te-n dut* (jatorrizko erranahia: *zerbait egiten ari naiz*)

b. èste a her quacòm
 be.1SG.PRES in do.INF something
 ‘Zerbait egiten ari naiz’

Arrazoitze honen arabera, euskara atzizki nominalizatailea (-tze) erromantzeko infinitiboaren (*her*) baliokidetako erabiltzen hasi zen, eta inesibo marka (-n) erromantzeko preposizioaren (*a*) orde. Haatik, euskarazko -tze + -n egiturak, erromantzeko progresiboak ez bezala, gramatikalizazio bidean aitzina egin zuen, aspektu burutugabearen marka bihurtzeraino (Haase, 1992: 93-94; Mounole, 2008: 586). Bertze modu batera erranda, *nominalizazioa* + *inesiboa* > *progresiboa* > *aspektu burutugabea* gramatikalizazio bidea erromantzearekiko ukipenak eragin zuen, baina gero euskaraz berariazko garapena izan du, erromantzez gertatu ez dena.

Hau bera da lan honetan *buru*-bihurkariekin agitu zela proposatzen dena: Erdi Aroko latinetikako mintzairetan *buru* eta *gorputz* hitzek erabilera bihurkariak izan zitzaizketen (3a-b). Eredu honi (E-hizkuntzari) jarraikiz euskarak, ER-hizkuntza izanik, *buru* hitzean oinarrituriko egitura bihurkaria gramatikalizatu zuen. Erromantzeak, bere aldetik, *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera bihurkariak galdu zituen; euskarak, aldiz, bereak gorde. Ondorioz, egungo euskararen egitura bihurkari nagusia Erdi Aroko erromantzeen ereduaren neurri bateko isla dela erran daiteke. Hipotesi hau bermatzen duten zenbait adibide agertuko dira hurrengo atalean.

2. Egitura bihurkarien balizko iturriak

Erabilerari dagozkion zenbait goiti-beheiti salbu (Mounole, 2011: 270; Salaberri Izko 2020: 23), euskalki guztiek dute *buru*-egitura bihurkarita-

sunak adierazteko baliabide nagusi⁵. Hala ere, ongi jakina denez, euskalkiek erromantze desberdinen eragina jasan dute Erdi Arotik hona. Hortaz, eta datuak aztertzeke erarik aproposena delakoan, hemen Iparraldeko euskalkietako adibideak okzitanierakoekin eta frantsesekoekin batera ikertu dira (ikus 2.1 atala). Hegoaldekoak, berriz, Erdi Aroko latinekoe-kin, gaztelaniakoekin eta nafar erromantzekoekin batean aipatu dira (ikus 2.2 atala).

Aztertu den latinaren eta erromantzeen corpusak X. eta XVIII. mendeen artean idatzitako testuak hartzen ditu. Hainbat eratako iturriak izan dira kontuan, bertzeak bertze ohiko hiztegiak (Blaise, 1975; Niermeyer, 1976; Migne, 1977 [1858]), hiztegi etimologikoak (Wartburg, 1929; Ernout & Meillet, 2001; de Vaan, 2008), corpus digitalak (Real Academia Española, 1994; Ricketts *et al.*, 2013; Galves *et al.*, 2017; Guillot-Barbance *et al.*, 2017; Quetglas & Gómez, 2019), testu edizioak (Lazar, 1995; Ramos, 2000; Monreal & Jimeno, 2008; Dworkin, 2018) eta gai honetaz diharduten lanak (Brunot, 1909; Jensen, 1986; Pérez, 2007).

2.1. Iparraldean eta inguruetan

Azpiatal honetako daturik garrantzitsuenak okzitanieratik hartuak dira, hau baita Erdi Arotik gutxienez XVIII. mendearen hondarrera arte, hau da, lan honetan garrantzizkoa den epean zehar, Iparraldeko euskalkietan eragirik handiena izan duen mintzaira (Haase, 1992: 19). Antza denez, Erdi Aroko okzitanieran *edutezko izenordaina + co(r)s* ('gorputza') egitura pertsona izenordainaren orde, hots, zentzu anaforikoan erabiltzea zilegi zen, baita ohikoa ere: «*Mos cors* lit. 'mon corps' est une périphrase emphatique pour *ieu*, toute comme *sos cors* et *vostre cors* peuvent servir de substituts pour *el* et *vos*» (Jensen, 1986: 88). Ondorioz, hainbat lan klasikotan horrelako erabilerak kausitzen dira (9a-c, Jensen, 1986: 88):

⁵ Hau, batez ere, historiari begira da egia; egungo joera, gehienbat ahozko euskararen eta orobat erromantzeak eragina, iragangaiztearen erabilera biderkatzeranzkoa da (Euskaltzaindia, 1991: 63).

- (9) a. *per que mos cors las abnega*
 for SUB 1SG.POSS body 3PL.F deny.3SG.PRES
 ‘Nik ukatzen ditudalako’ (Jausbert de Puyciboten olerkia, 5.37, ca. 1230)
- b. *sos cors val ben per*
 3SG.POSS body be.useful.3SG.PRES well for
armas Olivier o Rotlan
 defend.INF Olivier or Roland
 ‘Berak Olivier edo Errolan babesteko balio du’ (*Chanson de la Croisade Albigeoise*, 72.10, ca. 1275)
- c. *meravill me cum vostre cos*
 astonish.3SG.PRES 1SG SUB 2PL.POSS body
s’orguilla
 REFL=take.pride.3SG.PRES
 ‘Zure harrotzeko moduz miraz nago’ (Comtessa de Diaren olerkia, 2.15, ca. 1210)

Erdi Aroko okzitanierako adibide hauetan (9a-c) *edutezko izenordaina* + *co(r)s* egiturak ez du zentzu hitzez hitzekorik, eta testu bereko aitzineko izakiei egiten die erreferentzia, ez perpaus berean daudenei. Bertze gisan erranda, egitura hauek balio anaforikoa dute, hitzez hitzekoa edo bihurkaria izan beharrean. Ez da erabat garbi horrelako adibideetan (9a-c) zergatik erabiltzen den egitura hori, ohiko pertsona izenordain soilaren orde. Dirudienez, *edutezko izenordaina* + *co(r)s*-ek, izenordain hutsaren parean, balio adierazkorra du eta, beraz, ardurakoagoa da olerkietan (Kriegel *et al.*, 2019: 335).

Mota honetako (*edutezko izenordaina* + *corps*) testigantzak ez daude, edonola ere, okzitanierara mugaturik. Erdi Aroko eta geroko frantsesean (1100-1800 urteen artean, goiti-beheiti), ahozko aldaeretan eta dialektoetan batez ere, antzekoak ediren daitezke. Honen adibide garbia, bereziki, esaera zaharrek (10a-d) ematen dute (Chaudenson, 1973: 360):

- (10) a. *se traïter bien le corps*
 REFL treat.INF well DEF body
 ‘Nork bere burua ongi zaintzea’ (Antoine Furetière, *Dictionnaire de l’Académie française*, 1694)

- b. *se tuer le coeur et le corps*
REFL kill.INF DEF heart and DEF body
'Esker txarreko ekintzan gogor lan egitea' (*Dictionnaire de Trévoux*, 1704-1771)
- c. *faire litière de son corps*
make.INF litter of 3SG.POSS body
'Nork bere burua arrisku handian paratzea' (Féraud, 1787)
- d. *porter bien son corps*
carry.INF well 3SG.POSS body
'Osasun ona izatea' (*Dictionnaire de Trévoux*, 1704-1771)

Gisa honetako egiturak Erdi Aroko frantseseko literaturan (11a-b) ere lekukotzen dira, okzitanieran bezalatsu; esanguratsua da, gainera, Anguleman jaio zen baina denbora batez (1525etik 1549ra) Nafarroako erregina izan zen Margaritak anaiari izkiriatu gutunetan ere aurki daitezkeela (11c, Anglade, 1931: 217; Kriegel *et al.*, 2019: 334-336):

- (11) a. *jo cunduirai mun curs en Roncesvals*
1SG drive.1SG.FUT 1SG.POSS body to Roncesvalles
'Neure burua Orreagara zuzenduko dut' (*Chanson de Roland*, 892. b., ca. 1100)
- b. *mais je le fis sor mon cors défendant*
but 1SG 3SG do.PTCP by 1SG.POSS body defend.GND
'Baina neure burua defendatuz egin nuen' (*Huon de Bordeaux*, 1350, ca. 1250)
- c. *l'ennuy que j'ay de ne*
DEF=annoyance SUB 1SG=have.PRES of NEG
pouvoir mener mon corps selon
be.able.INF lead.INF 1SG.POSS body by
ma volonté
1SG.POSS will
'Nik daukadan enbarazua, neure burua nahierara ezin zuzentzeagatik' (Margarita Nafarroakoaren *Gutunak*, ca. 1550)

Okzitaniarako (9a-c) eta frantseseko (10a-d, 11a-c) adibide hauek lan honetako hipotesia bermatzeko orduan bi oztupo dituzte: alde batetik, eta gaur egungo euskarazko *buru*-egitura ez bezala, batzuk (9a-c) ez dira bihurkariak, anaforikoak baizik. Bertze aldetik, *gorputz* izena darabilte, ez *buru*. Bi zailtasun hauek datu historikoen eta tipologikoen bidez gaindi daitezke. Lehen oztupoaren kariaz, oroitu beharra dago, autore batzuen arabera, GAIek erabilera anaforikoa hartzea bihurkari markaranzko gramatikalizazio bidean aitzineko urratsa dela (cf. 1.3 atala). Beraz, gramatikalizazio bide honek, teorian behintzat, aurreikusten du euskarazko *buru*-egitura bihurkaria izan baino lehen –edota izan bitartean⁶– anaforikoa izan zela. Hau bera da, hain zuzen ere, XVI. eta XVII. mendeetan Iparraldeko testuetan ikusten dena (12a-b):

- (12) a. *hebetic ioan gabe ene buruya eguin vehar duçu ene nahia* (Etxepare, 1980: 206)
- b. *ene bekhatuek iragan eta erdiratu dute ene burua* (Axular, 2015: 277)

Esaldi hauetan *ene buruya* eta *ene burua* egiturek ez diote perpaus bereko osagaiari erreferentzia egiten, testuan lehenago aipatutakoei baizik. Horrela bada, *ni* izenordain anaforikoaren ordeztoko daudela erran daiteke, Erdi Aroko okzitaniarako eta frantseseko lekukotasunetan bezalaxe. Horrelako testigantzak (12a-b) XVI-XIX. mendera arteko testuetan bakarrik edireten dira eta, hortaz, ongi konpontzen dira *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidearen proposamenarekin.

Honek bigarren zailtasunera bideratzen gaitu. Honi begira erran beharra dago, lehenik eta behin, bai *gorputz* eta bai *buru* GAIak direla eta morfosintaktikoki (edutezko izenordainari, kasuari, komunztadurari eta abarri begira) jokamolde iduritsua dutela eta, beraz, biak ala biak ikuspegi tipologikotik baliokidetzat, hots, GAIean oinarritutako izenordain bihurkaritzat har daitezkeela. Ondorioz, errepikapen gramatikalizazioan bihurkaria adieraz-

⁶ Osagai gramatikal berak (kasu honetan, euskarazko *buru* izenak) aldi berean gramatikalizazio bide bereko urrats bat baino gehiago (GAIa edo hitzez hitzekoa, anaforikoa eta bihurkaria) erakustea usaiaikoa da hizkuntza aldaketan. Gertakari honi *geruzartzatzea* (*layering*) deitu ohi zaio (Hopper, 1991: 22).

teko erabiltzen den GAI jakinaren hautuak ez du izugarritzko garrantzirik, GAIa den bitartean. Bigarrenik, aipatzekoa da Iparraldeko euskalkien historian badirela *gorputz* hitzaren erabilera anaforiko (13a) eta bihurkariaren (13b) etsenplu bakan zenbait:

- (13) a. *ipharra balimbada goraintzi Salari ene khorpitzaren cherkha jin da dila sarri* (Salaberri, 1870, 286)⁷
- b. *gaou batés tripa huzic béré corpusa usthen du escabella baten gaira érorτέρα < Un soir, le ventre vide, il se laissa tomber sur un escabeau* (Aurrekoetxea & Bidegain, 2004, 124)

Azkenik, ez da ahantzi behar Axularrek (2015: 121-122) behin gutienez latineko *corpus buru* hitza erabiliz itzultzen duela:

Hala erraiten du Jondone Paulok: *Et si distribuero in cibos pauperum omnes facultates meas, et tradidero corpus meum, ita ut ardeam charitatem, autem, non habuero, nihil mihi potest* (1 Cor. 13). «Dudan guztia probei eman badiazet ere, eta neure burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik <221> ezpadut».

Horrela, bada, eta lan honetako hipotesiaren argitan, proposa liteke euskara arkaikoan jatorrizko hiztegiko *buru* hitzaren eta erromantzeko *co(r)(p)s*-en artean bazela neurri bateko baliokidetasun semantikoa, (9a-c), (10a-d) eta (11a-c) perpausak euskarara egokitzea eta, ondorioz, errepikapen gramatikalizazioa gertatzea ahalbidetu zuena.

2.2. Hegoaldean eta inguruetan

Aitzineko azpiatalean ez bezala, hemen daturik garrantzitsuenak Erdi Aroko latinetik hartuak dira, hau baita, okzitanierako eta frantseseko per-

⁷ *Atharratzeko gazteluaren kantuaren* ezagutzen den bertsiso zaharrenean, Xahok bilduan, *ene tcherca* irakurtzen da (Kaltzakorta, 2017: 134). *Ene tcherca* eta *ene khorpitzaren cherkha* esamoldeen arteko aldakortasun honek adierazten du Salaberriren bertsisoan *khorpitz*-ek erranahi anaforikoa izan dezakeela.

pausak lekukotuta dauden garai berean, *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera bihurkaria usuenik kausitzen den hizkuntza. Mitxelenak (1992, 674), OEH-ko *buru* hitzaren sarreran, hurrengoa dio: «en documentos latinos próximos al área vasca son frecuentes *hoc caput*, *meo capo*, etc. referidos al que habla». Euskararekin ukipenean zeuden Erdi Aroko latinen aldaerek, beraz, *bere burua* eta *neure burua* erran nahi zuten egiturak erabiltzen bide zituzten perpau bereko subjektuari erreferentzia egiteko, hots, zentzu bihurkarian. Errenteriako hizkuntzalariak pasartean latineko adibiderik ematen ez badu ere, garai eta alderdi horretako latinean idatzitako testuei begiratua emateak haren oharra berresteko aukera ematen du: XII. mendeko Valpuestako⁸ (Burgos) Andre Maria kodexean, adibidez, *capo*-bihurkarien zenbait adibide (14a-b) ediren daitezke (Ramos, 2000: 66, 78):

- (14) a. *trado meum caput vel vinea*
 trade.1SG.PRES 1SG.POSS head for vineyard
mea
 1SG.POSS
 ‘Neure burua nire ardantzearen truke aldatuko dut’ (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)
- b. *ego Fredulfus episcopus sic commendo*
 1SG Fredulfus bishop thus entrust.1SG.PRES
meo capo ad atrium Sancte Marie
 1SG.POSS head to house Saint.GEN Mary.GEN
 ‘Nik, Fredulfus apezpikuak, hortaz neure burua Andre Maria etxeari (elizari) uzten diot’ (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)

Euskararen Erdi Aroko eremutik pixka bat urrunduz gero, Iberiar penintsulan gutienez bi alderdi gehiagotan ediren daitezke *capo*, *corpus* edota antzeko hitz formetan oinarritutako egitura bihurkariak. Lehen eremua Asturiasen eta Gaztela-Leongo iparraldean dago kokatuta (15a-b, Pérez, 2007: 317). Bigarrena, berriz, Katalunia aldean (15c, Quetglas & Gómez, 2019):

⁸ Onomastika datuek adierazten dutenez, XII. mendean Valpuesta eremu euskaldunetik hurrantze bide zegoen (Salaberri Zaratiegi, 2018: 298-302).

- (15) a. *kapite nostro ponemus ad*
 head.PL 1PL.POSS.PL place.1PL.PRES at
seruiendum atque martir-es tuo-s
 service.DAT as martyr-PL 2SG.POSS-PL
 ‘Geure buruak martiritako paratzen ditugu zure zerbitzuan’
 (Leongo katedrale artxiboko dokumentu bilduma, 983)
- b. *omn-es sumus principe-s et duce-s*
 all-PL be.1PL.PRES prince-PL and duke-PL
capitum nostrorum
 head.GEN.PL 1PL.POSS.GEN
 ‘Denok gara geure buruen printze eta duke’ (*Chronica Adefonsi Imperatoris*, 208-218, 1157)
- c. *in primis concedo corpus meum*
 in first confer.1SG.PRES body 1SG.POSS
ad domum S. Cucuphati
 to house Saint Cucuphas
 ‘Lehenik eta behin, neure burua done Kukufateren etxeari emanen diot’ (Sant Cugat del Vallèsko kartularioa, 1097)

Caput-en eta *corpus*-en erabilera bihurkariok (14a-b, 15a-c) Erdi Aroan hitz hauek zentzu adierazkorrean eta anaforikoan ibiltzeko joerarekin zeri-kusi garbia dute (16a-b, Blaise, 1975: 256; Migne, 1977: 619):

- (16) a. *corpus reg-is*
 body king-GEN
 ‘Erregea bera (erregearen gorputza)’ (Tomas Aquinokoaren *Summa de veritate catholicae* 4, 84, 1274)
- b. *corpus castr-i*
 body castle-GEN
 ‘Gaztelua bera (gazteluaren gorputza)’ (Tomas Rymerrren *Foedera*, ca. 1400)

Ondorioz, erran daiteke lekukotze hauek bi kontu agertzen dituztela: alde batetik, Iberiar penintsulako Erdi Aroko latinak euskarak jasan duen *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bide bera egin du,

eta bertzetik, Iberiar penintsulako Erdi Aroko hizkuntzetan hedatua zen *gorputz* eta *buru* hitzak zentzu anaforikoan eta bihurkarian ibiltzeko joera. Izan ere, joera hau bera dokumentatua dago garai bertso garai nafar erroman-tzean (17a), gaztelanian (17b-c), katalanean (17d) eta portugesean (17e, Real Academia Española, 1994; Lazar, 1995; Monreal & Jimeno, 2008, 246; Galves *et al.*, 2017; Quetglas & Gómez, 2019)

(17) a. *los XII ricos ombres deuen iurar*
 DEF twelve rich men must.3PL.PRES swear.INF
a=l rey de curiar=le el cuerpo
 to=DEF king to protect.INF=3SG DEF body
 ‘Hamabi gizon aberatsek erregeari babestuko dutela zin egin behar diote’ (*Joana II eta Filipe Evreuxkoaren zin-egite agiria*, 1329)

b. *mi agrauio de mi cuerpo*
 1SG.POSS grievance of 1SG.POSS body
sobre Babilonia
 due.to Babylon
 ‘Nire atsekabea, Babiloniak sortua’ (*Biblia latinada I-i-3*, ca- 1400)

c. *más querría que me quisiese como*
 rather want.3SG.COND SUB 1SG love.3SG.SBJ as
a su cuerpo
 AM 3SG.POSS body
 ‘Nahiago nuke bere burua bezala maiteko banindu’ (Melchor de Santa Cruzen *Floresta española*, 276, 1574)

d. *yo offir lo meu cos a*
 1SG offer.1SG.PRES DEF 1SG.POSS body to
combatre
 fight.INF
 ‘Neure burua borrokatzeko eskaintzen dut’ (*Històries e conquestes del realme d’Aragó e Principat de Catalunya*, B21, ca. 1450)


e. *ofereçia seu corpo a pelear*
 offer.3SG.PST 3SG.POSS body to fight.INF
 ‘Bere burua borrokatzeko eskaintzen zuen’ (*Biblia de Lamego*, ca. 1490)

Ohart bedi irakurlea Iberiar penintsulako erromantzeetako adibideon (17a-e) antzekoak diren *buru* hitzaren erabilera, Hegoaldeko euskalkietan, testurik zaharretan ere dokumentatzen direla (18a-c):

- (18) a. *oshoac vere burua mandatariric onaena* (Urkixo, 1919, 50)
 b. *banabil burua ezin sinisturic, erasuna elicaturazat arturic* (Lakarra, 1996, 270)
 c. *Silveroc, au ençun eguian orduan, bere buruari ichi eusan lurrera jausten* (Bilbao et al., 2010: 44)

Hurrengo irudiak Behe Erdi Aroko (X-XV. mendeetako) latinetiko hizkuntzetan *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera anaforikoak eta bihurkariak lekuotuta dauden eremuak erakusten ditu, lan honetarako egin den bilaketaren emaitzen arabera (non gorria = latina; beltza = portugesa; marroia = katalana; laranja = gaztelania; horia = nafar erromantzea; urdina = okzitania eta berdea = frantsesa):

2. irudia. Behe Erdi Aroko erromantzeetan *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera anaforikoak eta bihurkariak dokumentatzen diren eremuak (mapa Michaelis et al., 2013-n oinarritua)



Irudian ikus daitekeen moduan, testigantzetatik bi multzok, Valpuestakoek eta nafar erromantzekoek, Behe Erdi Aroan euskara mintzatzen zen alderdiaren barruan izateko aukera handia dute. Bertze lekukotasunak ere ez daude euskal eremutik arunt urruti: gehienak Iberiar penintsulako iparraldean eta egungo Frantziako hegoaldean biltzen dira. Ohartu beharra dago, gainera, hizkuntza hauetatik bakar batek ere ez duela gaur egun *buru* edo *gorputz* hitzetan oinarritutako egitura bihurkaririk: hau bat dator, 1.3 atalean azaldu moduan, Erdi Aroko ER-hizkuntzako (euskarako) hitzunik zeukaten *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidea E-hizkuntzan (erromantzez) gauzatu zelako ustearekin, eta euskaraz gauzatu bide den aspektu burutugabearen gramatikalizazioaren ildo berekoa da.

Ondorioz, *buru*-egitura bihurkaria erromantzetatik mailegatua dela sinesteak hurrengo galderara garamatza: eredia zein hizkuntzak osatu zuen eta, beraz, berrikuntza zein euskalkitan agertu zen lehenbizi? Honi begira, hiru aukera nagusi dirateke: (a) lehenik Iparraldeko euskalkiek hartu zuten *buru*-bihurkarietako eredia, okzitanieratik; (b) lehenik Hegoaldeko euskalkiek hartu zuten eredia, latinetik, gaztelaniatik edota nafar erromantzetatik; (c) Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkiek aldi bertsuan hartu zuten eredia, hizkuntza desberdinetatik.

Aurreko atalean agertu moduan, Erdi Aroko okzitanieran ez dago *buru* hitzean oinarritutako egitura anaforikorik, ez bihurkaririk, *gorputz* ibiltzen dutenak baizik; *buru* eta *gorputz*, biak ala biak, GAIak eta ondorioz tipologikoki baliokideak badira ere –har bedi gogoan Axularren latineko itzulpena–, *buru* ez agertze horrek lehen (a) hipotesia onartzea zailtzen du. Hirugarren (c) proposamenak ere ez du arras sinesgarria ematen, kasualitate handiegia baitirudi erromantze desberdinek, zeinek bere alderdian, euskararen eragin bera izateak.

Bigarren (b) iradokizuna, berriz, hiru puntuk bermatzen dute: lehenik eta behin, Erdi Aroko mintzaireren artean bakarrik Pirinioetatik hegoaldeko latinak erakusten ditu *buru* hitzaren zalantzarik gabeko erabilera bihurkariak; bigarrenik, hizkuntza honetako testigantzak (Valpuestakoak, batez ere) euskararen eremutik gainerako gehienak baino hurbilagoak dira; eta, hirugarrenik, *buru* hitzaren erabilera anaforiko ia denak Iparraldean baizik ez ditugu. Hau kasualitatea dateke menturaz, baina iradokitzen du Iparraldeko

euskalkiek *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidea Hegoaldekoen ondotik eta, beraz, mantsoago egin zutela. Ondorioz, pentsa liteke egitura hau garatzen lehenak Hegoaldeko euskalkiak izan zirela, eta berrikuntza bertatik Iparraldera hedatu zela. Proposamen honek euskararen historiako izan ditzakeen ondorioak hurrengo atalean azalduko dira.

3. Egitura bihurkarien historiaz eta aitzin-historiaz

Aurreko atalean argudiatu da euskarak *buru*-egitura bihurkaria erroman-tzeekiko ukipenaren ondorioz, errepikapen gramatikalizazio bidez eta menturaz Behe Erdi Aroan garatu zuela. Orain arte munduko hizkuntzez ezaguna dena oinarri hartuta, bihurkaritasuna adieraztea ezaugarri unibertsala dela uste denez gero⁹ (Geniušienė, 1987, 152), honako galdera hau egin dezakegu: euskarak, *buru*-egitura gramatikalizatu aitzin, zer baliabide zuen bihurkaritasuna adierazteko?

Euskarak egun dituen bihurkari marketatik (1a-c), eta *buru*-egitura alde batera utzita, ez da lehen testigantzen aitzineko garairako iragangaiztea (1b) ez berreraikitzeo arrazoirik. Ikuspegi hau bermatzen duten bi zergatik dira aipagarriak: alde batetik, aurreneko lekukotasunetatik egungo egoerara arte euskararen aditz sistema errotik aldatu bada ere (Mounole, 2011, v; Lakarra, 2018: 25), bihurkaritasuna adierazteko aditza iragangaiztea testurik zaharretan eta hizkuntzaren historia idatzi osoan zehar aurki daiteke (19a-c):

- (19) a. *lohi eçarri vkan draut neure beguién gainera, eta garbitu naiz, eta ikusten dut* (Leizarraga, 1990: 640)
- b. *eçagutcen dut, aitortcen, eta confessatcen leguesqui edireiten eta eracusten naicela hobēduri iaincoaren majestate offensatuaz* (Pouvreau, 1664: 74)
- c. *Andra Menina Arandañoco (zein zan bere lengusina) eracusi zan encargù onetan ondo debotèa eta fina* (Zuloaga, 2015: 186)

⁹ Ohartu beharra dago (a) bihurkaritasuna adieraztea eta (b) bihurkaritasuna adierazteko baliabide bereziak izatea gauza bana direla: izan ere, badira (b) bezalakorik ez daukaten hizkuntzak (Haspelmath, 2008: 43).

Bertze aldetik, eta batez ere Iparraldeko euskalkieie begira, iragangaiztea XVI. eta XVII. mendeetan egungo euskararen baino gehiagotan erabiltzen da bihurkaritasuna adierazteko (Mounole, 2011: 147; Salaberri Izko, 2020: 23). Maiztasuna aintzat edukirik, hizkuntza-aldaketan ezaugarri batek bertzea ordezkatzeko duenean, osagairik zaharrenaren agerraldiak denborarekin murrizten dira, desagertu edo gramatikaren bazterreko eremuetan fosilizatu arte (Bailey, 1973: 77; Kroch, 2001: 720). Hartara, eta –nahiz eta egungo ahozko hizkuntzan joera berriz ere gibeleratekoa izan– *buru*-bihurkariak neurri batean ordezkatu duela onartuz gero, pentsa daiteke lehenbiziko testigantzen aurreko euskararen bihurkaritasuna adierazteko iragangaiztea hedatuta zegoela. Gauza bera erran daiteke (1c) moduko *bihurkari ahulez*: honelakoen testigantzak XVI-XVII. mendeetan ez dira gutitan kausitzen (20a-c):

- (20) a. *eta nolaco baitaite hitz hau bakhotcharentçat, hau berori adituren du orduan beretçat* (Etxeberri Ziburukoa, 1981: 174)
- b. *etzaretela bada arthatsu biharamunaz: ecen biharamunac beretaco artha vkanen du* (Leizarraga, 1990: 301)
- c. *eçe berac içanen baitirade beretaco borrero cruelac* (Beriain, 1626: 15)

Azkenik, euskara arkaikotik lehenbiziko euskara modernorako bidean *guzti* + *-au/-ori* egituraren erabilera anaforikoak (21a-b) eta bihurkariak (21c-d) aurki daitezke mendebaldeko testuetan¹⁰:

- (21) a. *arren, esaçu guztiau çurea nax ta erraz daguiquet* (Bilbao et al., 2010: 77)
- b. *ene guztiau ceure eguin eguiçu* (Bilbao et al., 2010: 151)
- c. *baneroean echurea, chitez guztiau galduric* (Lazarragaren B eskuizkribua)¹¹
- d. *vaquiçu zurea orain gustiau naçana* (Sarasola, 1983: 88)

¹⁰ Eneko Zuloaga, ahozko adierazpena.

¹¹ Hemen eskuragarri: <https://klasikoak.armiarma.eus/lazarraga/trans055.htm>.

Laburbilduz, Behe Erdi Aroan *buru*-egitura hizkuntza-ukipenaren ondorioz gramatikalizatu aurretik ere, ematen du euskarak, hizkuntza-tipologiaren argitan, bihurkaritasuna adierazteko egungoa bezain sistema konplexua, hots, hiru baliabidek (iragangaizteak, *bihurkari ahulek* eta *guzti + izenordain erakuslea* egiturak) osaturikoa zuela. Lan honetan azaldutako datuek, gainera, aurreko zenbait lanetakoekin batera (Sarasola, 1979; Mounole, 2011; Evseeva & Salaberri, 2018; Salaberri Izko, 2020), euskaraz bihurkaritasuna adierazteko izan diren baliabideen kronologia ezartzea ahalbidetzen dute:

(22) Euskarazko bihurkarien kronologia

- a. Behe Erdi Aroa arte: iragangaiztea, *bihurkari ahulak*, *guzti + izenordain erakuslea* egitura (azkena mendebaldean bakarrik (?)).
- b. Behe Erdi Aroa: *buru*-egitura bihurkariaren sorrera, errepikapen gramatikalizazioz.
- c. XVI-XIX. mendeak: *guzti + izenordain erakuslea* egituraren gainbehera, *buru*-egituraren erabilera anaforikoen azkeneko lekukotzeak.
- d. XVIII. mendea: edutezko izenordain bihurkarien eta ohikoen arteko bereizketa (Linschmann-Aresti legea) galtzea.
- e. XIX-XXI. mendeak: iragangaiztearen pixkanakako murriztapena (idatziz bakarrik), *buru*-ren eta aditzaren arteko numero komunztadurak nahitaezkotasuna galtzea.

Datuok, alde batetik, Erdi Aroko euskararen ikuspegi garbiagoa ematen dute, orain arte egin diren proposamenek (Reguero, 2012; Salaberri Zaratiegi, 2018) kontuan hartu ez duten gramatikaren alderdia azaltzen dutelako. Bertze aldetik, euskararen historia argitzeari ekarpena egiten diote, bihurkaritasunaren garapena ere ez baita gramatika historikoetan (Trask, 1997; Gorrotxategi *et al.*, 2018) aintzat eduki.

4. Ondorioak

Lan honetan, munduko hizkuntzen datuak oinarri hartuta, erakutsi da euskarazko *buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkaria duen hizkuntza

bakanetakoa dela. Hau, joera tipologiko unibertsalei ez ezik, hizkuntza-ukipen egoera historikoari ere zor zaiola proposatu da. Zehazkiago erran, euskarak *buru*-bihurkaria erromantzeekilako ukipenari zor diola adierazi da, eta prozesu hau errepikapen gramatikalizazio delakoaren bidez gertatu zela. *Buru*-egituraren iturriari begira, Behe Erdi Aroko latinetik mendebaldeko euskarara zabaldu zatekeen, eta hortik, denbora tarte ez oso luzean, gainerako euskalkietara, hipotesirik sinesgarrienaren arabera betiere. Proposamen hau kontuan izanik, bihurkaritasuna adierazteko baliabideek euskararen historian izan duten garapenaren kronologia, eta euskarak Erdi Aroan ukan dituzkeen bihurkaritasuna bideratzeko eskuartearen ikuspegia aurkeztu dira. Azkenik, datu hauek aurretantzean euskararen (aitzin-)historia berantiarra deskribatzeko saioa egiten duten lanek kontuan hartu beharko lituzketela nabarmendu da.

Aipatu lanak

Aikhenvald, Alexandra & Dixon, Robert, 2007, *Grammars in contact: a cross-linguistic typology*. Oxford: Oxford University Press.

Anglade, Joseph, 1931, *Grammaire élémentaire de l'ancien français*. Bosgarren argitalpena. Paris: Armand Colin.

Aurrekoetxea, Gotzon & Bidegain, Xarles, 2004, *Haur prodigioaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Axular, 2015, *Gero*, Blanca Urgellen edizioa. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

Bailey, Charles-James, 1973, *Variation and linguistic theory*. Washington: Center for Applied Linguistics.

Beriain, Juan, 1626, *Doctrina christiana escrita en romance y bascuence*. Iruñea: Carlos de Labayen.

Bickel, Balthasar; Comrie, Bernard & Haspelmath, Martin, 2015, *Leipzig glossing rules*. Hemen eskuragarri: <https://www.eva.mpg.de/lingua/resources/glossing-rules.php>.

Bilbao, Gidor; Gómez, Ricardo; Lakarra, Joseba A.; Manterola, Julen; Mounole, Céline & Urgell, Blanca, 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Blaise, Albert, 1975, *Dictionnaire latin-français des auteurs du Moyen-Âge*. Turnhout: Brepols.

Brunot, Ferdinand, 1909, *Histoire de la langue française des origines à 1900, Volume 3, La formation de la langue classique*. Paris: Armand Colin.

Chaudenson, Robert, 1973, «Pour une étude comparée des créoles et parlers français d'outre-mer: survivance et innovation», *Revue de Linguistique Romane*, 147/148, 342-371.

Dworkin, Steven, 2018, *A guide to Old Spanish*. Oxford: Oxford University Press.

Ernout, Alfred & Meillet, Antoine, 2001, *Dictionnaire étymologique de la langue latine: histoire des mots* (laugarren argitalpena). Paris: Klincksieck.

Etxeberri Ziburukoa, Ioannes, 1981, *Manual devotioñezcoa*. Patxi Altunaren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia & Ediciones Mensajero.

Etxepare, Bernat, 1980, *Linguae vasconum primitiae*. Patxi Altunaren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia, 1991, *Euskal gramatika lehen urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Evseeva, Natalia & Salaberri, Iker, 2018, «Grammaticalization of nouns meaning “head” into reflexive markers: a cross-linguistic study», *Linguistic Typology*, 22(3), 385-435.

Faltz, Leonard, 1977, *Reflexivization: a study in universal syntax*. University of Californiako doktore tesia.

Galves, Charlotte, de Andrade, Aroldo & Faria, Pablo, 2017, *Tycho brahe parsed corpus of historical Portuguese*. Hemen eskuragarri: <http://www.tycho.iel.unicamp.br/~tycho/corpus/texts/psd.zip>

Geniušienė, Emma, 1987, *The typology of reflexives*. Berlin & New York: de Gruyter.

Gorrotxategi, Joakin; Igartua, Iván & Lakarra, Joseba A. (arg.), 2018, *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Guillot-Barbance, Céline; Heiden, Serge & Lavrentiev, Alexei, 2017, *Base de français médiéval*. Hemen eskuragarri: <http://bfm.ens-lyon.fr/>.

Haase, Martin, 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburgo: Helmut Buske.

Haspelmath, Martin, 2008, «A frequentist explanation of some universals of reflexive marking», *Linguistic Discovery*, 6(1), 40-63.

Heine, Bernd, 1999, «Polysemy involving reflexive and reciprocal markers in African languages», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reciprocals: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 1-29.

Heine, Bernd & Kuteva, Tania, 2003, «On contact-induced grammaticalization», *Studies in Language*, 27(3), 529-572.

———, 2005, *Language contact and grammatical change*. Cambridge: Cambridge University Press.

Hopper, Paul, 1991, «On some principles of grammaticalization», in Elizabeth Traugott & Bernd Heine (arg.), *Approaches to grammaticalization, Volume I, Focus on theoretical and methodological issues*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 17-35.

Hopper, Paul & Traugott, Elizabeth, 2003, *Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.

Jensen, Frede, 1986, *Syntaxe de l'ancien occitan*. Tübingen: Niemeyer.

Kaltzakorta, Jabier, 2017, *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa I*. Bilbo: Labayru Fundazioa & Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

Kazenin, Konstantin, 2001, «Verbal reflexives and the middle voice», in Martin Haspelmath, Ekkehard König, Wulf Oesterreicher & Wolfgang Raible (arg.), *Language typology and language universals: an international handbook, Volume 2*. Berlin & New York: de Gruyter, 916-927.

König, Ekkehard, 2007, «Vers une nouvelle typologie des marques réfléchies», in André Rousseau, Didier Bottineau & Daniel Roulland (arg.), *L'énoncé réfléchi*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 107-129.

König, Ekkehard, & Siemund, Peter, 2000, «Intensifiers and reflexives: a typological perspective», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 41-74.

Kriegel, Sibylle, Ludwig, Ralph & Pfänder, Stefan, 2019, «Dialectes - créolisation - convergence», in Andreas Dufter, Klaus Gröbl & Thomas Scharinger (arg.), *Des parlers d'oil à la francophonie: contact, variation et changement linguistiques*. Berlin & Boston: de Gruyter, 299-348.

Kroch, Anthony, 2001, «Syntactic change», in Mark Baltin & Chris Collins (arg.), *The handbook of contemporary syntactic theory*. Londres: Blackwell, 699-729.

Kuteva, Tania; Heine, Bernd; Hong, Bo; Long, Haiping; Narrog, Heiko & Rhee, Seongha, 2019, *World lexicon of grammaticalization*. Bigarren argitalpena. Cambridge: Cambridge University Press.

Lakarra, Joseba A., 1996, *Refranes y sentencias (1996): ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU*, 31(2), 447-535.

———, 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco», *Acta Palaeohispanica*, 9, 407-470.

———, 2018, «Euskararen historiaurrea», in Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 23-230.

Lazar, Moshe, 1995, *Biblia ladinada: escorial I. J. 3*. Wisconsin: Hispanic Seminary of Medieval Studies.

Lehmann, Christian, 2015, *Thoughts on grammaticalization*. Hirugarren argitalpena. Berlin: Language Science Press.

Leizarraga, Joanes, 1990, *Jesus christ gure iaunaren testamentu berria, othoitza ecclesiasticoen forma, catechisme, kalendrera, ABC edo christinoen instructionea*. Theodor Linschmann eta Hugo Schuchardten edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

de Lorris, Guillaume & de Meun, Jean, 1920, *Le roman de la rose, Volume 4*. Ernest Langloisen edizioa. Paris: Librairie de Firmin-Didot.

Michaelis, Susanne; Maurer, Philippe; Haspelmath, Martin & Huber, Magnus, 2013, *Atlas of pidgin and creole language structures online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemen eskuragarri: <https://apics-online.info/>.

Migne, Jacques, 1977 [1858], *Lexicon manuale ad scriptores et infimae latinitatis*. Paris: Jacques Migne.

Mitxelena, Koldo, 1963, *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.

———, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.

———, 1992, *Orotariko euskal hiztegia, Volume 5, Berr-Daf*. Bilbo; Desclée de Brouwer & Euskaltzaindia & Mensajero.

Monreal, Gregorio & Jimeno, Roldán, 2008, *Textos histórico-jurídicos navarros, Volume 1, Historia antigua y medieval*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Mounole, Céline, 2008, «Perifrasa zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria», *ASJU*, 41(1), 67-138.

———, 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko doktore tesia.

Niermeyer, Jan, 1976, *Mediae latinitatis lexicon minus: a Medieval Latin-French/English dictionary, Volume 1*. Leiden: Brill.

Pérez, Estrella, 2007, «Caput in the Medieval Latin from Asturias and León», *Listy Filologické*, 130-3/4, 311-328.

Pouvreau, Sylvain, 1664, *San Frances de Sales Genevaco ipizpicvaren philothea*. Paris: Claude Audinet.

Puddu, Nicoletta, 2005, *Riflessivi e intensificatori: greco, latino e le altre lingue indoeuropee*. Pavia: Università di Pavia.

Quetglas, Pere & Gómez, Ana, 2019, *Corpus documentale latinum Cataloniae*. Hemen eskuragarri: <http://gmlc.imf.csic.es/codolcat/>

Ramos, Emiliana, 2000, *Los cartularios de Santa María de Valpuesta: análisis lingüístico*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Real Academia Española, 1994, *Corpus diacrónico del español*. Hemen eskuragarri: <http://corpus.rae.es/cordenet.html>.

Reguero, Urtzi, 2012, «Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik», *ASJU*, 46(2), 63-160.

Ricketts, Peter; Akerhurst, Ron & Reed, Alan, 2003, *Concordance de l'occitan médiéval*. Birmingham: University of Birmingham.

Rijk, Rudolf de, 2008, *Standard Basque: a progressive grammar*. Cambridge & Londres: Massachusetts Institute of Technology Press.

Salaberri, Jean-Dominique-Julien, 1870, *Chants populaires du Pays Basque*. Baiona: Lamaignère.

Salaberri Izko, Iker, 2020, «Grammaticalization of reflexivity in Basque: a corpus-based diachronic and typological analysis», *Journal of Historical Linguistics*, 10(1), 1-41.

Salaberri Zarategi, Patxi, 2018, «Euskara Erdi Aroan», in Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 287-344.

Salvi, Giampaolo, 2011, «Morphosyntactic persistence», in Martin Maiden, John Smith & Adam Ledgeway (arg.), *The Cambridge history of the Romance languages, Volume 1, Structures*. Cambridge: Cambridge University Press, 318-381.

Sarasola, Ibon, 1979, «Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan», *Euskera*, 25(2), 431-466.

———, 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17, 69-212.

Schladt, Matthias, 2000, «The typology and grammaticalization of reflexives», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 103-124.

Szent-Ivány, Béla, 1964, *Der ungarische Sprachbau: eine kurze Darstellung mit Erläuterungen für die praxis*. Leipzig: VEB Verlag Enzyklopädie.

Thomason, Sarah, 2001, *Language contact*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

Trask, Robert, 1997, *The history of Basque*. Londres: Routledge.

Urkixo, Julio, 1919, *El refranero vasco, Volume 1, Los refranes de Garibay*. Donostia: Martin, Mena y Compañía.

Vaan, Michiel de, 2008, *Etymological dictionary of Latin and the other Italic languages*. Laiden & Boston: Brill.

Väänänen, Veikko, 1967, *Introducción al latín vulgar*. Manuel Carriónen itzulpena. Madril: Editorial Gredos.

Viti, Carlotta, 2009, «Anaphorische und reflexive Strukturen im Altgriechischen und im Lateinischen», *Indogermanische Forschungen*, 114, 143-172.

Wartburg, Walter von, 1929, *Französisches etymologisches Wörterbuch: eine Darstellung des galloromanischen Sprachsatzes*. Bonn: F. Klopp.

Weiss, Michael, 2009, *Outline of the historical and comparative grammar of Latin*. Ann Arbor & New York: Beech Stave Press.

Ziegeler, Debra, 2017, «Historical replication in contact grammaticalization», in Daniel Van Olmen, Hubert Cuyckens & Lobke Ghesquière (arg.), *Aspects of grammaticalization: (inter)subjectification and directionality*. Berlin & Boston: de Gruyter, 311-352.

Zuloaga, Eneko, 2015, «Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko zortzikoak», *ASJU*, 49(1/2) 179-201.